

Funtsezko jarduerak

HoloMeet-en funtsezko jardueren artean honako hauek nabarmentzen dira: softwarearen garapena eta etengabeko hobekuntza, jendea erakartzeko gure produktuak eta zerbitzuak erosteko, erabiltzaileek esperientzia errealistago eta erakargarriagoa izan dezaten. Teknologia berrikuntzak funtsezkoak dira plataformaren kalitatea eta hobekuntza egiteko.

Horretaz aparte,, marketin-kanpainak eta sektore desberdinetako bezeroak erakartzeko estrategiak ere garrantzitsuak dira, merkatuan posizio altu bat lortzeko jende edo kontsumitzaileen arteko erlazioa ona izan behar da. Zerbitzarien mantentze-lanak ere ezinbestekoak dira, plataforma egonkor eta azkar bat zabaltzeko eta erabiltzaileei kalitate handiko esperientzia eskaintzeko.